URRIA-AZAROA / 2018

# KULTUR AGENDA



Aitzoain
Añezkar
Ballariain
Berriobeiti
Berriogoiti
Elkarte
Larrageta
Lotza
Oteitza

# BERRIOBEITI

**Azaleko irudia:** Zirika Zirkus taldeak emanaldia egingo du azaroaren 23an, ostirala, Artika Berriko plazan.

AYUNTAMIENTO BERRIOPLANO
BERRIOBEITIKO UDALA

Argitaratzailea: Berriobeitiko Udala
L.O.: NA 253-2015
Doan banatzen da

Casa de Cultura
MARIA DE MAEZTU
Kultur Etxea

# BERRIOBEITIKO KULTUR AGENDA

**URRIA-AZAROA/2018**
Editorea: Berriobeitiko Udala
Doako zabalpena

## ›› OHARRAK

**PUNTUALTASUNA**
Ikuskizuna hasi ondoren, ezin izanen da inor aretoan sartu.

**SOINU-SEINALEAK**
Aretoan sartzerakoan deskonektatu beharko dira.

**GRABAKETAK ETA ARGAZKIAK**
Debekatuta daude.

**JANARIAK ETA EDARIAK**
Aktoreek eta ikusleek merezi duten begiruneagatik, barne-ikuskizunetan ezin izanen da jan, ezta edan ere.

**ITZULTZEAK**
Sarrera bat erosteko ordaindutako dirua itzultzeko arrazoi bakarra ikuskizuna bertan behera uztea izanen da.

**SARRERAK**
Zenbakidun sarrerak.

## ›› TXARTEL SALMENTA

Ikuskizunetarako txartelak María de Maeztu Kultur Etxean erosten ahalko dira **emanaldi bakoitzaren aurreko astean. Ez da telefono bidezko erreserbarik onartuko**.

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

**LEIHATILAN**
(Kultur Etxeko Atezaindegian). Ikuskizun bakoitza hasi aurreko ordubete lehenagotik.

**ALDEZ AURRETIK**
**www.berrioplano.es** webgunean eta Kultur Etxeko atezaindegian, 16:00etatik 21:00etara

## ›› KULTUR AZPIEGITURAK

**KULTURA ZERBITZUA**
Udaletxean
**Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:** cultura@berrioplano.es

**MARIA DE MAEZTU KULTUR ETXEA**
Iturribidea, 1. Artika.
**Tel:** 948 38 32 54
**Kafetegi-Taberna**
**Tel:** 948 57 14 34

**LIBURUTEGI PUBLIKOA**
Maria de Maeztu Kultur Etxean
**Neguko ordutegia:** 15:00etatik 21:00etara
**Tel:** 948 38 26 22
**Posta elektronikoa:** bibliarc@cfnavarra.es
**Kontsultatu:** www.navarra.es

**ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA**
**BERRIOBEITI**
Nuestra Señora de la Purificación, 11.
**Ordutegia:** 10:00etatik 22:00etara.
**Tel:** 948 59 62 23

**ARTIGUNE I**
**ARTIKA** Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:** 948 30 31 29

**ARTIGUNE II**
**ARTIKA** Leonor Akitaniakoa, 26
**Informazioa:** 948 30 31 29

**MUSIKA ESKOLA**
María de Maeztu Kultur Etxean **Tel:** 616 72 52 18
**Posta elektronikoa:** orreagamusika@gmail.com

**KONTZEJUEN ETXEAK**

**AITZOAIN**: Oronsuspe auzoa k/3

**AÑEZKAR**: San Andres k/ 6
**Tel:** 618 77 84 61

**ARTIKA**
Kontzeju Etxea San Marcial K/ 9
**Tel:** 948 38 37 93
"María Domínguez" Gizarte-Etxea María Domínguez K/3
**Tel:** 948 38 37 93

**BALLARIAIN:** San Pedro k/ z/g

**BERRIOGOITI:** Santa Eulalia k/39
**Posta elektronikoa:** concejoberriosuso@yahoo.es

**BERRIOBEITI:** Kale Nagusia k/ 2

**ELKARTE:** Purificación k/ 16

**LARRAGETA:** San Esteban k/ z/g
**Tel:** 948 30 21 59

**LOTZA:** San Joan k/ z/g
**Tel:** 690 68 68 50

**OTEITZA:** San Joan k/ 6
**Tel:** 651 65 83 14

## ›› KULTUR ETXEA, FACEBOOKEN

### JARRAIGUZU!




## ››LIBURUTEGIA NEGUAN

### ARRATSALDEKO ORDUTEGIA

Zerbitzuak: liburuak eta ikus-entzunezkoak mailegutan uztea; aldizkariak eta eguneroko egunkariak; internet eta posta elektronikoa; arreta eta aholkularitza uneoro. Artikako liburutegi publikoa Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean dago sartuta, eta katalogoa **www.navarra.es** webean dago kontsultagai.

María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)
**Neguan ordutegia:**
15:00 - 21:00
**bibliarc@navarra.es**
**948 38 26 22**

## ›› LIBURUTEGIA ETXEAN BEREAN

### MUGIKORTASUN MURRIZTUKO LAGUNENTZAT

Berriobeitiko herrietan bizi diren lagunentzat, Nafarroako Liburutegi Publikoetako erabiltzaile txartela eta mugikortasun murriztua izanez gero.

Eskaerak
**bibliarc@navarra.es**
**948-382622**
(15:00-21:00)

## ›› EGUBERRIETAKO HIRI KANPAMENTUAK HAURRENTZAT

### IZEN-EMATEA / AZAROAK, 12, 13 eta 14

Berriobeitiko Udalak haurrendako hiri kanpaldiak eskaintzen ditu oporraldietan. Gune ludikoak dira familia eta lana bateragarri egiteko, eta Zendeako haurrek jostatzeko eta garatzeko toki bat izan dezaten, betiere hainbat gai landuz eta balioak nahiz sormena sustatuz. Taldeak euskaraz eta gaztelaniaz dira, 4 urtetik 12ra bitarteko haurrentzat, bai Artikako María de Maeztu Kultur Etxean, bai Berriobeitiko Erabilera Anitzeko Eraikinean.

Telefonoz
012 – Infolokal
**Ordutegia:** 08:00-19:00
**Ordainketa:** txartelaz

## Urriaren 1a eta 31 artean

**ERAKUSKETA**

### “Irudi bat berdintasunagatik”

Udaleko Berdintasun Batzordeak antolatutako lehiaketara aurkeztutako argazki lanak.

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordutegia:** 16:00etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera. Larunbat eta jaiegunetan, ikuskizunen ordutegian




## 02 ASTEARTEA

**PARTE HARTZEKO TAILERRA ARTIKAN**

### “Nolako Berriobeiti nahi dugu gazteok?”

Gazteriaren Tokiko Diagnostikoaren barnean dago jarduera hau.

**Artika**
**Lekua:** Artigune 1 (Leonor Akitaniakoa, 30)
**Ordua:** 17:00
**Adina:** 13 urtetik aurrera

KIROLA GAZTERIA BERRIOBEITI | DEPORTE JUVENTUD BERRIOPLANO



## 02 ASTEARTEA

**IRAKURKETA TALDEA** (euskaraz)

**Artikako Liburutegi Publikoa**
**Ordua:** 19:30

# PROGRAMAZIOA URRIA 2018

## 03 ASTEAZKENA

PARTE HARTZEKO TAILERRA BERRIOBEITIN

### “Nolako Berriobeiti nahi dugu gazteok?”

Gazteriaren Tokiko Diagnostikoaren barnean dago jarduera hau.

**Berriobeiti**
**lekua:** Erabilera Anitzeko Eraikina
**Ordua:** 17:00
**Adina:** 13 urtetik aurrera

KIROLA GAZTERIA BERRIOBEITI | DEPORTE JUVENTUD BERRIOPLANO



## 05 OSTIRALA

IPUIN-KONTALARIA (euskaraz)

### “Sagutxoak non-nahi”

VENTURA RUIZ



Neska-mutiko guztiak sagu bihurtuko dira, hainbat istoriotan parte hartzeko. Luzatu bibotea eta isatsa, eta ez galdu aukera!

**Artikako Liburutegi Publikoa**
**Ordua:** 18:00
**Publikoa:** 4 urtetik gora
**Sarrera:** doakoa, baina gonbidapena behar da. Urriaren 4tik aurrera, osteguna, banatuko dira, liburutegiko ordutegian
**Iraupena:** 60 min

## 18 OSTEGUNA

IRAKURKETA TALDEA (gaztelaniaz)

**Artikako Liburutegi Publikoa**
**Ordua:** 19:30

## 19 OSTIRALA

IPUIN-KONTALARIA (gaztelaniaz)

### “Como pez en el agua”

VENTURA RUIZ



Ibaiak, itsasoak, aintzirak, putzuak eta urez betetako aterkiak. Plisti-plasta, plisti-plasta... Liburutegia uretako istorioekin zipriztinduko dugu!

**Artikako Liburutegi Publikoa**
**Ordua:** 18:00
**Publikoa:** 4 urtetik gora
**Sarrera:** doakoa, baina gonbidapena behar da. Urriaren 18tik aurrera, osteguna, banatuko dira, liburutegiko ordutegian
**Iraupena:** 60 min

**20** LARUNBATA

TXANGOA ERRETIRODUN ETA LANGABEENTZAT

## Getaria eta Zumaia

Cristóbal Balenciaga Museoa Getarian, eta San Pedro eliza, alde zaharra eta Arrantzaleen Kofradia Zumaian.

**Izen-ematea:**
012 – Infolocal
**Izena emateko egunak:**
,urriak 4, 5 eta 8
**Prezioa:** 20 euro



**27** LARUNBATA

ANTZERKIA

## “El florido pensil, niñas”

TANTTAKA TEATROA

María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)
**Ordua:** 20:00
**Prezioa:** 6 euro, aurrez eta 7 euro leihatila
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua



Tanttakaren lanak gerraondoko Espainiako hezkuntza sistemaren krudeltasun absurdu eta zentzugabea jasaten duten bost neskatoren egunerokoa kontatzen du. Eskola gizartearen eta horren ideologia menderatzailearen isla zen. Ideologia horrek Erdi Aroko patriarkaturik sakonena berreskuratu eta azken ondorioetaraino ezartzea erabaki zuen. Emakumeak izan ziren ekintza moralizatzaile horren helburu; izan ere, ezkontzea eta etxeko lanak egitea zen beren berezko bidea. Eta beren ibilbide profesionala, familia osatzea eta seme-alabak edukitzea. Horretan bat zetozen ia guztiak, emakumeak zein gizonak: maistra, apaiza, gurasoak, moralistak, kupletistak, eleberri arrosen idazleak, baita gimnasia-irakasleak ere. Eszena guztietan ikusiko da, batzuetan argi, besteetan itzulinguru korapilatsuen bidez, bi emakume mota baino ez zeudela: zintzoak eta besteak.

## 28 IGANDEA

**HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA** (euskaraz)

# “Niko, banpiro txiki bat”

TDIFERENCIA



**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 18:00
**Sarrera:** 4 euro aldez aurretik erosita, 5 euro txarteldegian
**Ikus-entzuleak:** familiak, 5 urtetik aurrerakoak
**Iraupena:** 70 minutu
**Antolatzailea:** Nafarroako Antzokien Sarea
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua

Musika, erritmo zoroa eta mezu garrantzitsu bat, ez-ulertu, bakarrik, berezi, bakan, jakin-mina eragiten duten pertsona, interesgarri... sentitzen direnentzat. Nola liteke hain desberdin izanda hain berdin izatea? “Peter Punk” eta “Caperucita Rock” ikuskizunen ondotik, hau iritsi da, antzerkiaren bidez, bereizi beharrean batzeko balio duten eta gainerakoenganako errespetuaren garrantzia erakusten duten bizi ohitura batzuk irakasteko asmoarekin.

## 30 ASTEARTEA

**ABESBATZARAKO MUSIKA**

# Coro Entrevoces (Habana - Kuba)

NAFARROAKO NAZIOARTEKO ABESBATZA ZIKLOAREN XXXIV. EDIZIOA

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 19:00
**Sarrera:** doakoa da, baina aurretik txartela hartu behar da www.berrioplano.es webgunean edo Atezaintzan

Digna Guerrak zuzendurik, Kubako abesbatza honetan 12 emakume eta 12 gizon dira kide. Garai eta estilo guztietako musika abesten dute; hots, Errenazimenduko polifonia, musika garaikidea, espiritual beltzak, folklore latinoamerikarra edota musika kubatarra, oro har. Nazioarteko abesbatza-lehiaketetan aritu dira, baita mundu erdiko agertokietan ere, eta sari aunitz jaso dituzte, hala nola XIX. eta XX. mendeetako abesbatza-grabaziorik onenarendako Echo Klassik 2012 saria eta Cubadisco Sari Nagusia 2016. Rolling Stones taldeak, gainera, abesbatza aukeratu zuen Habanan emaniko kontzerturako.



## 05 - 23 azaroa

ERAKUSKETA

### "Universo Naif"

ATENA FUNDAZIOA

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordutegia:** 16:00etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera. Larunbat eta jaiegunetan, ikuskizunen ordutegian





Atena Fundazioak bere erakusketa ibiltaria aurkeztuko du, Karla Gerard artistaren lanari eskainita. Atena Fundazioak desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat arte eszenikoetan prestakuntza hartzeko duen eskolako ikasleek parte hartu dute erakusketa honetan. Zehazki, eskola horren helburua da bertan egiten den lanari zabalkundea ematea eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen irudi positiboa ematea. Estatubatuar margolaria, Karla Gerard artista abstraktu ospetsua da. Bizitzea gustatuko litzaigukeen mundu magikoa deskribatzen dute bere margolanek. Lan horien kolore distiratsuak, egilearen ikuspuntu intuitibo eta pertsonala, eta proportzioetan irizpide zehazturik ez egotea aintzat hartuta, naïf generoaren barnean koka ditzakegu.

## 06 ASTEARTEA

**IRAKURKETA TALDEA** (euskaraz)

**Artikako Liburutegi Publikoa**
**Ordua:** 19:30

## 11 IGANDEA

**HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA**
(gaztelaniaz eta zeinu-hizkuntzan)

### "El silencio de Hamelín"

FARRÉS BROTHERS

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 18:00
**Sarrera:** 4 euro aldez aurretik erosita, 5 euro txarteldegian
**Ikus-entzuleak:** 6 urtetik aurrekoak eta familia osoa
**Iraupena:** 60 minutu
**Antolatzailea:** Nafarroako Antzokien Sarea
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua

**ANTZERKIA ETA GIZARTERATZEA BATZEKO PROPOSAMEN ONENAREN 2018KO FETÉN SARIA JASOA**



Zer gertatuko litzateke txirulari ezagunaren ipuinean neskato gor bat balego? Istorio bera bi ikuspuntutatik kontatuta: hitzen bidez eta hitzik gabe. Objektuak, esaldiak, zeinu-hizkuntza, DJ berezi bat eta desabantailak izatearen abantailak. "Beste gaitasunei" buruzko ikuskizuna, esaten ez diren baina azkenean azaleratzen diren gauzei buruzkoa. Klararen gorreriaren bidez, munduan ezkutatzen diren isiltasunak agerian jarriko dira. Mundu zaratatsua eta oihularia, baina ezkutatzen diren gauzaz betea, ezer esan gabe hitz egiten duen jendeaz... eta entzuten duen baina jaramon egin nahi ez duen jendeaz.

## 15 OSTEGUNA

**IRAKURKETA TALDEA** (gaztelaniaz)

**Artikako Liburutegi Publikoa**
**Ordua:** 19:30

## 16 OSTIRALA

**IPUIN-KONTALARIA** (euskaraz)

### “Kolorerik gabeko hiria”

VENTURA RUIZ

Zer gertatuko litzateke egun batean, jaikitzean, gure hiriak kolorerik ez balu? Koloreak berreskuratzen saiatuko gara gure margo guztiekin.



**Artikako Liburutegi Publikoa**
**Ordua:** 18:00
**Publikoa:** 4 urtetik gora
**Sarrera:** doakoa, baina gonbidapena behar da. Azaroarenen 15etik aurrera, osteguna, banatuko dira, liburutegiko ordutegian
**Iraupena:** 60 min

## 17 LARUNBATA

**MENDI IBILALDIA eta BAZKARIA**

### Loza-Etxauri

**Lotzako kontzeju etxetik**
**Ordua:** 09:30
**Distantzia:** 11 km
**Zailtasuna:** txikia
**Bazkaria:** 14:00 (Sarbil jatetxea)
**Itzulera:** 17:00, autobusez
**Izen-emateak:** 012 telefonoan, azaroaren 7, 8 eta 9an
**Prezioa:** 18 euro helduek / 10 euro haurrek
**Plaza mugatuak**



## 21 ASTEAZKENA

**PARTE HARTZEKO TAILERRA BERRIOBEITIN**

# Bihotz-biriketako bizkortze tailerra, doakoa

Larragetan laster desfribiladore bat jarriko dela-eta (parte-hartze aurrekontuen kontura).

**Larragetako kontzeju etxea**
**Izen-emateak:** 012 telefonoan, azaroaren 8 eta 9an
**Gutxieneko adina:** 10 urte
**Emailea:** El ABC que Salva Vidas elkartea
**Plaza mugatuak**




## 23 OSTIRALA

**IPUIN-KONTALARIA** (gaztelaniaz)

OLGA ELIZBURU



**Artikako Liburutegi Publikoa**
**Ordua:** 18:00
**Publikoa:** 4 urtetik gora
**Sarrera:** doakoa, baina gonbidapena behar da. Azaroaren 22tik aurrera, osteguna, banatuko dira, liburutegiko ordutegian
**Iraupena:** 60 min

## 23 OSTIRALA

### KALE ANIMAZIOA (EUSKARAZ)

## “Egun on, sikiera!”

ZIRIKA ZIRKUS

**Artika Berriko plaza**
**Ordua:** 18:30
**Sarrera:** doakoa
**Iraupena:** 60 minutu
**Ikus-entzuleak:** familiak, 4 urtetik aurrerakoak





Dena prest. Berehala hasiko da ikuskizuna. Koreografiak, jolasak, igarkizunak, zirkua, abestiak. Konfusok prest ditu perkusioa eta musikak. Hasteko, saio bat egingo dute, esaten duten moduan, dena emanda! Baina hasi eta berehala, arazoa sortuko da. Komunikazio arazoa...
Kalean, etxean, eskolan, ahal den guztietan, euskaraz!

## 25 IGANDEA




### SARIEN BANAKETA

## “Irudi bat berdintasunaren alde” argazkilaritzako lehiaketa

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

**María de Maeztu Kultur Etxea**
**Ordua:** 12:00
**Luntxa:** 13:00
**Lekua:** erakusketa aretoa